gazteria
Txorierriko Mankomunitatea

Txorierri
ezagutu aukeratzeko

# Profesionalentzako Aurkezpena




Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Txorierriko Mankomunitatea

Txorierri
egaz
Ekonomi garapenerako zerbitzua
Servicio de desarrollo económico

Erandio!

## Zer da Ezagutu Aukeratzeko Egonaldia?

Goiz batean zehar ikasle batek bere lanaldian profesional bati laguntzea da. Ikasleak bere egonaldiko anfitrioiak egiten dituen jarduera guztietan parte hartuko du, hala nola elkarrizketetan, bileretan, eguneroko zereginetan eta abarretan.

## Zeintzuk dira helburuak?

Enpresa baten egunerokotasuna ezagutzea sektoreko profesionalekin lanaldia partekatuz, kontuan hartuta, datozen urteetan sektore horren inguruko prestakuntza jaso nahi duela.

## Nori zuzenduta dago?

2022-2023 ikasturtean programari atxikitako prestakuntza-zentroetako Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak.





# Zergatik hartu behar dut parte?

- Zure enpresaren/enpresen ikusgarritasuna handitzen duzu, hezkuntza eta enpresa komunitatearen barruan.
- Lan merkatuari aurre egiteko belaunaldi prestatuagoa osatzen laguntzen duzu, zure esperientziarekin, ezagutzekin eta aholku onei esker, gazte baten ikaste prozesuan balio erantsia emanez.
- Gazte bati etorkizuneko bizitza profesionalean oso baliagarriak izango zaizkion gaitasun eta trebetasun garrantzitsuak eskuratzen laguntzen duzu.






# Zer gaitasun eta trebetasun garatzen dituzte egonaldiek?

.

- Autonomia
- Ekimen pertsonala
- Lidergoa
- Talde-lana
- Erabakiak arrazoituta hartu
- Norbera ezagutza
- Etengabeko hezkuntza
- Helburuak hezartzea
- Oztopoak gainditzea
- Zure etorkizun profesionala kontzientzia hartzea

## Nork har dezake parte?

Lanean diharduen profesional oro, espiritu solidarioarekin, bere lanarekiko gogotsu eta gazteen etorkizuneko garapen profesionalaren alde inplikatuta.

## Oso lanpetuta nago, denbora asko emango dit?

Inola ere ez! Jarduerak 09:00etan hasiko dira, eta 14:00etan amaituko dira, gutxi gorabehera. Hala ere, ordutegia zuk markatzen duzu, enpresaren eta lanpostuaren baldintzetara eta ezaugarrietara egokituta.

## Profesionala moduen zure zeregina ezinbestekoa da

Proiektu honetan parte hartzearekin zure denboraren ordu gutxi batzuk baino ez dituzu inbertituko eta ikasle baten prestakuntzan lagunduko duzu, bere etorkizuneko aukera profesionalak zalantzan jarri eta erabakitzen dituen funtsezko etapa batean.

# Nola antolatzen da egonaldia?




9.00 – Ikaslea enpresara iristea.

9:00 - 9:30 – Aurkezpenak.

9:30 - 13:30 – Programatutako jarduerak garatzea.

13.30 h -14.00 h – Azken bilera eta jardueraren ebaluazioa.

Hala ere, ordutegia profesionalak erabakiko du, lanbide eta egonaldi bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Programaren helburua da gazteari erakustea nolakoa den ohiko lanaldia, baina sektorearen inguruko ikuspuntu globala ere emango zaio, etorkizunean izan ditzakeen aukerak azalduko zaizkio eta, ahal den neurrian, hezkuntzaren eta lanaren arteko lotura egingo da.Era berean, lortu nahi diren helburuak erdiesteko ahaleginaren eta lanaren kulturaren balioa azpimarratu nahi da.Ez da enpresara edo organizaziora egindako bisitaldi gidatua.

Profesional bakoitzak 1-3 ikasle artean hartu ahal izango ditu, lanegun bakoitzeko.

# Nola har dezaket parte?

· Bisita ezazu gure web gunea
“www.gazteria.eus”

Klikatu “Gure programak”, “Ezagutu Aukeratzeko”, “Enpresetan egonaldiak” eta bete eskatutako datu guztiak.

Kontuz ibili zure posta elektronikoarekin eta enpresaren datu orokorrekin.



## Kontuan hartu beharreko araudi garrantzitsua:

- **Asegurua:** Egonaldien programan parte hartzen duten ikasleak EGAZ Txorierriren konturako aseguru batez babestuta daude. Aseguru horrek jardueraren garapenean egon daitezkeen gorabeherak estaltzen ditu.

- **Joan-etorriak:** Ikaslea egonaldiaren lekura joatea ikaslearen beraren ardura da.

- **Erantzukizunak**: Bai erakunde antolatzaileak bai egonaldia egingo duen enpresak uko egiten diote edozein motatako erantzukizunari, baldin eta ikasleak, bere borondatez, aipatutako programara ez joatea erabakitzen badu eta/edo beste edozein arrazoirengatik joaten ez bada, gurasoek/tutoreek hala aurreikusita bazuten.

- **DBLO:** Emandako datuak DBLOan ezarritako irizpideen arabera tratatuko dira, eta ez dira erabiliko programatik kanpoko helburuetarako.

Programari atxikitako ikastetxeak:

POLITEKNIKA TXORIERRI

"Ezagutu Aukeratzeko" Honako hauen finantzaketari esker izan da:

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Txorierriko Mankomunitatea

Txorierri egaz
Ekonomi garapenerako zerbitzua
Servicio de desarrollo económico


Txorierri Etorbidea 46

48150 Sondika

94 453 63 70
658 397 826

ezagutu@egaz.eus


**Txorierriko enpresen, ikastetxeen eta gazteen arteko gizarte-erantzukizuneko sarea**

# Laguntzaileak

# Egun bateko egonaldiak profesionalekin



Aukeratu beharreko datak: 2024ko martxoak 4,5,6 eta 7

“17 urte zenituenean zuk amesten zenuen lana ezagutzeko aukera izan bazenu...”

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

# Harremanetarako:

**Koordinazio orokorra:**

Hiart Jauregi
Ezagutu Aukeratzeko Programa-Egonaldiak
ezagutu@egaz.eus
T:94.453.63.70
658.397.826

Helbidea: EGAZ TXORIERRI
Txorierri Etorbidea 46- Polígono Berreteaga 13A
48150 –Sondika- Bizkaia